

## ALIANZAK

Gure proiektua aurrera eramán ahal izateko ezinbestekoa izango da beste hainbat elkarte edo enpresekin aliantza sendoak ezartzea. Horren haritik, **BIOCRACIA** izeneko enpresarekin elkarlanean aritu nahi dugu. BIOCRACIA arropa eta ehun organikoen enpresa bat da, Espainian oinarritua, eta ohiko

ehungintzaren alternatiba gisa sortua. Biodibertsitatea errespetatzeko eta bere prozesuan inplikaturako pertsona guztien iraunkortasuna eta garapena sustatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, jendeak dohaintzan emandako arropaz aparte, enpresa honi oihalak eta beharrezkoak diren materialak erosteko prest gaude eta hauekin arropa berria sortu.



Era berean, proiektua aurrera eramateko Bilbo Handiko Udalekin ere lan egin nahi dugu. Herri hauetan edukiontzi berezi batzuk ipiniko ditugu (polikiroldegian edo bestelako eraikin publiko batetik gertu), eta hauek dendara fisikoki etorri ezin diren pertsonentzat zuzenduta daude. Edukiontzi berak botatako arropa edo oihala pila pisatuko du, eta bezeroak pisuaren arabera beherapen-txartel bat jasoko du ondoren denda fisikoan zein online denda erabili ahal izateko. Azkenik, furgoneta elektriko batek edukiontzietan bilduta zama jasoko du eta arropa gure eskuetara helduko da.



Aurreko guztia laburbilduz, alde batetik BIOCRACIArekin egindako aliantzak eta bestetik, edukiontzien ezarpenak gure bezeroenganako hurbiltasuna lortzea espero dugu.